

## Kostuen egitura

**Definizioa:** Kostua, enpresak eskaintzen duen zerbitzu edo ondasun bat produzitzean erabili beharreko materialaren diru kantitateari deritzo. Honek, honako sailkapena du oinarri:



- **Kostu finkoak:** Kostu hauek ez dira enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen, hau da, ekoizpena igotzen edo jaisten bada, ez du aldaketarik pairatuko kostuak. Gure kasuan ondorengoak izango lirateke: Lokala, ordenagailuak, langileen soldatak, etab.
- **Kostu aldakorak:** Kostu hauen kasuan, ekoizpenaren arabera aldatzen dira, hau da, produkzioa kontuan hartuta kostuak igo edo jaitsi egiten dira. Gure kasuan ondorengoak lirateke: Argi indarra, etab. Kostu hau kalkulatzeko, honako formula erabili behar da:  $KA = Kau \cdot Q$
- **Kostu osoak edo guztizko kostuak:** Enpresak izango dituen kostu totalari esaten diogu, bere formula, ondorengoa da:  $KO = KF + KA$



### \*Oharra:

$Q$  = Kantitatea

$Kau$ : Kostu aldakor unitarioa, hau da, unitateko kostua, formula honakoa delarik:  $KA / Q$



Bi negozio-eredu desberdindu daiteke:

1. **Balioan oinarritutakoak:** Honekin lan egiten duten enpresek, kalitatea edota ospearen bidez iritsi nahi du bezeroarengana, hau da, lehia ez da produktua beteek baino merkeago saltzea, baizik eta kalitate edo ospea nagusi izatea.
2. **Kostuan oinarritutakoak:** eredu hau erabiltzen dutenek aldiz, lehiakideak baino merkeago izan nahi dute, kalitatea eta ospea bigarren maila batean utzita.



Ondorioz, gure kasuan, kostu minimoak erabiltzen saiatzen gara, horrela jende guztiak gure produktuaz disfrutatu dezake inongo bereizketarik egin gabe. Horretarako, gure web orria aurrera eramateko, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabiliko ditugu.



## Startinnova proiektua

---

Aipatu bezala, enpresak daukan ondarea era batera edo bestera kontabilizatu behar dugu, eta horretarako, kontabilitate plana erabiliko dugu. Kostuen kontabilitatea edo kontabilitate analitikoa enpresaren funtzionamenduko kostuak aurreikusi, sailkatu, erregistratu eta kontrolatzeko kontabilitate-sistema izango da. Honekin, enpresak bere barruan dauzkan ekoizpen-prozesuak hobeto ezagutzen lagunduko dio eta azken prezioa era egoki eta justuan zehaztuko du.

Aipatutako kostuak, era batera edo bestera kontabilizatu beharko ditugu, eta hau egiterakoa bi kostu motekin aurkituko gara:

1. **Kostu zuzenak:** Enpresaren produktu edo jarduera bati zuzenean izendatu behar zaion kostua da. Gehienetan, kostu hauek, aldakorrek izaten dira, ekoizpenarekin aldatzen baitira eta normalean erabilitako lehengaiak edo osagaiak izan daitezke. Baina batzuetan ere, kostu finkoak izan daitezke, adibidez, langileei ordaindu behar zaion soldatak.
2. **Zeharkako kostuak:** Ezin dira modu zuzenean produktu bati erantsi, izan ere garrantzia minimo bat badutelako, hauek, ordaintzerako orduan, adibidez: lokalaren alokairua, administrazioko edo zuzendaritzako langileen soldatak...



